

SENTSAZIO TERMIKOA

Zer da sentsazio termikoa?

Gure inguruko airearen temperatura berbera bada ere, egun batzuetan beste batzuetan baino hotz handiagoa sentitzen dugu. Sentsazio termikoa deritza pertsona batek parametro meteorologiko batzuen konbinazioaren arabera sentitzen duen hotz- edo bero-sentsazioari. Gradu zentigradutan adierazten da, temperatura bezala.

Sentsazio termikoa neguan

Neguan, temperaturaren eta haizearen arteko konbinazioaren mende dago balio hori; faktore hauek dira hotz-sentsazioa areagotzen dutenak: larruazalaren temperaturaren (32°) eta airearen temperaturaren arteko diferentziak, eta haizearen eraginak, gorputzaren bero-galera azkartzen baitu.

Adibidez, 0°C -ko temperatura egiten duen egun batean, haizea bare badago, sentsazio termikoa 0°C -koa izango da. Temperatura berean, haizea 25 km/h -ko (7 m/s) abiaduran badabil, sentsazioa -6°C -koa izango da.

Sentsazio termikoa 10°C -tik beherako tenperaturetarako kalkulatzen da.

Sentsazio termikoa udan

Udan ere bero gehiago edo gutxiago senti dezakegu temperatura berean; kasu horretan, temperaturaren eta hezetasun erlatiboaren arteko konbinazioak eragiten du sentsazio hori. Egun beroetan, hezetasun erlatibo handiak bero-sentsazioa areagotzen du, airean dagoen gehiegizko hezetasunaren ondorioz izerdia (gorputzaren beroa murrizteko baliabide nagusia) nekezago lurruntzen delako.

Adibidez, 30°C -ko temperatura egiten duen egun batean, hezetasun erlatiboa % 50ekoa bada, sentsazio termikoa 36°C -koa izango da.

Udan, sentsazio termikoa 20°C -tik gorako tenperaturetarako kalkulatzen da.

1. TAULA



HOTZAGATI KO SENTSAZIO TERMIKOAREN BALIOEN TAULA (WIND)

		AIREAREN TEMPERATURA CELSIUS GRADUTAN (C)										
		0	-5	-10	-15	-20	-25	-30	-35	-40	-45	-50
HAIZEA	5	-2	-7	-13	-19	-24	-30	-36	-41	-47	-53	-58
	10	-3	-9	-15	-21	-27	-33	-39	-45	-51	-57	-63
	15	-4	-11	-17	-23	-29	-35	-41	-47	-54	-60	-66
	20	-5	-11	-18	-24	-30	-37	-43	-49	-56	-62	-68
	25	-6	-12	-19	-25	-32	-38	-44	-51	-57	-64	-70
	30	-6	-13	-19	-26	-32	-39	-46	-52	-59	-65	-72
	35	-7	-13	-20	-27	-33	-40	-47	-53	-60	-66	-73
	40	-7	-14	-21	-27	-34	-41	-47	-54	-61	-67	-74
10 m- ra (km/h)	45	-8	-14	-21	-28	-35	-41	-48	-55	-62	-68	-75
	50	-8	-15	-22	-29	-35	-42	-49	-56	-63	-69	-76
	55	-8	-15	-22	-29	-36	-43	-50	-56	-63	-70	-77
	60	-9	-16	-23	-29	-36	-43	-50	-57	-64	-71	-78
	65	-9	-16	-23	-30	-37	-44	-51	-58	-65	-72	-79
	70	-9	-16	-23	-30	-37	-44	-51	-58	-65	-72	-79
	75	-9	-17	-24	-31	-38	-45	-52	-59	-66	-73	-80
	80	-10	-17	-24	-31	-38	-45	-52	-59	-67	-74	-81

Gutxi gorabeherako atalaseak:

Arrisku txikia:	-10etik -27ra	Hipotermia-arriskua, aire zabalean denbora luzez egoteagatik	
Arrisku neurritsua:	-28tik -39ra	Izozte-arriskua, denbora luzez egoteagatik (10 minututik 30 minutura)*	Hasieran bero dagoen larruazala aire zabalean jartzean. Larruazala hasieran hotza badago, denbora gutxiago
Arrisku handia:	-40tik -54ra	Izozte-arriskua 10 minutuan*	
Oso arrisku handia:	-55 edo gutxiago	Izozte-arriskua 2 minutu baino gutxiagoan*	

*Haizea etengabe 50 km/h baino abiadura handiagoan badabil, izozteak azkarrago gerta daitezke.

2. TAULA



BEROAGATIKO SENTSAZIO TERMIKOAREN BALIOEN TAULA (WIND CHILL)

		AIREAREN TEMPERATURA CELSIUS GRADUTAN (C)																	
		27	28	29	30	31	32	33	34	35	36	37	38	39	40	41	42	43	44
HEZETASUN ERLATIBOA (%)	45	27	28	29	30	32	33	35	37	39	41	43	46	49	51	54	57	61	64
	50	27	28	30	31	33	34	36	38	41	43	46	49	52	55	58	62		
	55	28	29	30	32	34	36	38	40	43	46	48	52	55	59	62			
	60	28	29	31	33	35	37	40	42	45	48	51	55	59	63				
	65	28	30	32	34	36	39	41	44	48	51	55	59	63					
	70	29	31	33	35	38	40	43	47	50	54	58	63						
	75	29	31	34	36	39	42	46	49	53	58	62							
	80	30	32	35	38	41	44	48	52	57	61								
	85	30	33	36	39	43	47	51	55	60	65								
	90	31	34	37	41	45	49	54	58	64									
95	31	35	38	42	47	51	57	62											
100	32	36	40	44	49	54	60												

Kontuz:	27tik 32ra	Nekea eragin dezake aire zabalean denbora luzez egoteak edo jarduera fisikoa egiteak
Oso kontuz:	33tik 40ra	Intsolazioa, bero-kolpea, kalanbreak jasan daitezke, aire zabalean denbora luzez egoteagatik edo jarduera fisikoa egiteagatik
Arriskua:	41etik 53ra	Intsolazioa, bero-kolpea, kalanbreak jasateko arrisku handiagoa, aire zabalean denbora luzez egoteagatik edo jarduera fisikoa egiteagatik
Muturreko arriskua:	54 edo gehiago	Bero-kolpea, berehalako intsolazioa

Eguzkitan egoteak bero-indizearen balioak 8 C gehi ditzake.

Temperatura 32 C-koa baino gutxiagokoa bada (larruazalaren temperatura), haizeak sentsazio termikoa murriztu egiten du. 32 C-koa baino handiagoa bada, areagotu egiten du.